

**GREZIAKO ZIBILIZAZIOA (1. zatia)**

Bete hurrengo hutsuneak eta erantzun galderak:

Nola deitzen zioten greziarrek bere lurraldeari?

(1).....

Zein penintsulatan kokatzen zen Greziako lurraldea?

(2)..... penintsulan.

Greziako zibilizazioa itsaso baten ekialdeko muturrean sortu zen? Zein da Itsaso hori?

(3)..... itsasoa.

Greziako estatu guztiak zibilizazio berekoak ziren: hizkuntza bera zuten eta jainko-jainkosa berak gurtzen zituzten. Baina horrela izan arren, antzinako Grezia ez zen inoiz izan estatu bateratua, estatuak (4)..... ziren.

Antzinako greziarrek Asia Txikiko kostaldetik ere hedatu ziren. Zer lurralde da Asia Txikia gaur egun? (5).....

Antzinako Greziako historian hiru aldi nagusi bereizten dira:

- Garai (6)..... , K.a. IX. eta VI. mendeen artekoa.
- Garai (7)..... , K.a. V. mendetik K.a. IV. mendearen lehen erdira bitarteko tartea hartu zuena.
- Garai (8)..... , K.a. IV. mendearen erdialdetik K.a. I. mendera bitartekoa.

Greziako zibilizazioaren jatorria Metal Aroan kokatzen dugu bi zibilizazioen inguruan.

Jatorri hori bi lekutan oinarritzen da, zeintzuk dira leku horiek? (9)..... eta

(10)..... uhartea.

GARAI ARKAIKOA

Mizenastar zibilizazioa desagertu zenean K.a. VIII. mendetik aurrera, greziarrak hirietan bilduz joan ziren. Hiri bereziak ziren, zeinek bere gobernu, lege eta armada propioa baitzuten. Nola deitzen ziren hiri horiek? (11).....



Esaten da hiri-estatuak zirela, bakoitzak bere gobernu sistema zeukalako. Horien artean nabarmendu behar ditugu bi: (12)....., gobernu demokratikoaren adibiderik onena, eta (13)....., aristokraziak gobernatutako polisaren adibiderik onena.

GREZIAN HEDAPENA

Greziar krisia nagusitu ondoren, biztanle kopurua asko handitu zen. Lurrak ez ziren behar bezain emankorrak eta nekazariak pobreak ziren. Egoera horretan, greziar askok emigratu egin zuten, eta hainbat (14)..... sortu zituzten Mediterraneoan barrena. Bi hedapen-bolada izan ziren: lehenengoa (15)....., eta bigarrena ekialderantz, eta koloniak fundatu zituzten Itsaso (16)..... kostaldean.